



Harro herri!



ZURELOGIK

LOGISTIC & TRANSPORT

ZURELOGIK enpresa
Azpeitiko bere instalazio berrietara doa eta
kamioietarako gidariak eta biltegiarako
langileak behar ditu.

Harremanetarako:

Comercial@zurelogik.com / 943 850 285



Ekarri etxean duzun aulki edo
sofa zahar hori eta
berri-berri utziko dugu!

Milaka oihal ditugu aukeran!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu,
BARREn bulegora etorri eta berria emango dizugu.
Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu
zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.
Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik.
Gure banatzaileek eskertuko dute.



LAN-DEIALDIA

Udaldirako hezitzaileak behar ditugu

ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila handia izatea.

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Hezkuntza Premia Behar Berezietao ikasketak nahiz esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Hautagaiek proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen arabera meritua ere baloratuko zaizkie.
- Elkarrizketak: apirilak 17-18
- Hautatuek oinarritzko prestakuntza-asteburuan hartu beharko dute parte.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
Apirilak 10, asteazkena

Non eta nola:

- www.elgoibarkoizarra.eus (lan poltsa)
- 943 741 626 / 643 499 169
- kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

Euskaldunen fenomenoa



"Esker onekoak, lagunkoiak eta jasotzen duguna asko baloratzen dakigunak garela esan ohi didate"

Hasi da #Harroherri 23. Korrika eta dagoeneko azken txanpan gaude. Milaka pertsona helburu berdin baten alde batuta, elkartuta. Egia esan, emozionatzekoa da honen harira sortzen den giroa, euskaldunen artean sortzen den zubia plazaratzea sekulakoa da.

Momentu honetan gure herritik 2.400 kilometrotara kokatuta dagoen irla batetik idazten dizuet, Tenerifetik. Duela gutxi etorri nintzen hona lanera eta bizitzera, eta ez dizuet gezurrik esango, sekulako esperientzia izaten ari da. Baina gauza askoren artean, gehien harritu nauena "euskaldunen fenomenoa" bezala deituko nukeena da.

Bidaiatzean askotan gertatu izan zait euskaldunekin topo egitea eta beti egin dit ilusioa. Batzuekin alderatuta, komunitate nahiko txikia garela esango nuke, baina aldi berean joaten zaren lekura joaten zarela argi dago euskaldun batekin topo egingo duzula eta une horretan etxean bezala sentituko zarela. Bestalde, munduko leku desberdinetan ere, gure komunitatearen berri duten askorekin elkartu izan naiz eta izugarritzko poza eman izan dit horrek.

Aurrez aipatutako bi egoera hauek gertatu zaizkit Artxipelako honetan eta jendeak oso harrera ona egin dit euskaldun gisa aurkeztu naizenetan. Askorekin euskal estereotipoen kontura brometan aritu izan naiz; beste batzuek, kuriositatez, terrorismoa eta historiari buruz galdetu izan didate; badaude, baita ere, euskararen jatorriari buruz jakinmin handia dutenak, gure kostaldea surfarekin lotzen dutenak edo gure natura eta gastronomiarekiko miresmena dutenak. Baina, batez ere, esker oneko pertsonak, lagunkoiak eta jasotzen duguna asko baloratzen dakigunak garela esan ohi didate, eta ez didazue esango hori entzuteak ez duenik poza ematen!

Laburbilduz, hamaika dira gure kultura, hizkuntza, historia, herriak, amalurra eta ohiturak sustatzen jarraitzeko aurkitu ditzakedan arrazoiak. Beraz, maitatu eta zabaldu dezagun gure euskara-altxorra, Pirritx Porrotx eta Marimototsek esaten duten bezala "sentitu, pentsatu eta HitzEkin, denok elkarrekin!".

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Karakate eguna-eskertza

Egun ederra izan zen zapatukoa; ederra herriko kaleetan giro bikainaz gozatu genuelako eta ederra Karakatek aurrerantzean ere bizirik jarraituko duela ospatu genuelako. Adierazi genuen bezala herritarren garaipena izan zena herritarrekin ospatzea zen gure asmoa eta hala egin genuen. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu era batera edo bestera eguneko ekintzetan parte hartu zuten herritar guztiei, baina bereziki jaiaren antolakuntzan inplikatu eta beren ekarpena egin zuten norbanako eta kolektiboei: Egur arte tailerrari, Morkaiko Rokodromo taldeko eta CATT-eko kideei, TX4 fitness Gimnasioari ; zuen lanari esker gustua ematen zuen plaza jendez lepo ikusteak. Elgoibarko eta Eibarko trikitilariak, Haritz dantza taldeak, Erbuze erraldoi eta buruhandien konpartsak eta herriko dultzaineroek jai giro bikaina jarri zuten eguardian herriko kaleetan. Taupada antzerki taldeak esanahiz beteriko performancea plazaratu zuen eta ondoren Euskal parrilari esker bazkari ederraz gozatu genuen. Eskerrak halaber Alfonso eta Gabiri eta Kitziki taldeari arratsaldea musikaz girotzearen, berezia izan zen elgoibarko

musikari beteranoak eta hasiberriak oholtza partekatzen ikustea. Azkenik mila esker beren borondaterik onenarekin Elgoibarrera bertaratu eta Maala rock doinu zuten Los del Garaje, The Pladures eta The Jacintones taldeei ere. Ezin ahaztu Aizu! ostalarien elkarte ere, beti bezala elkarlanean aritzeko prestutasuna erakustearren, Iñigo Astigarraga ekintzak grabatzearen, Iñaki Bengoetxea kartela egitearen eta Deuko Izarra antolaketa lanak erraztearen

Karakate Bizirik

OHARRA

Aste Santua dela-eta, datozen bi asteetan ez dugu BARREN aldizkaria kaleratuko. Hurrengo zenbakia apirilaren 12an kaleratuko dugu.

BARREN



I.URTEURRENA

Mari Carmen Agirregomezkorta Elizburu

2023ko martxoaren 23an hil zen, 88 urte zituela.

**Zure ondoan bizitza pozgarria izan zen.
Ez zaitugu ahaztuko.**

Etxekoak



I.URTEURRENA

Josefina Ulazia Etxeberria

1930/02/03 - 2023/03/23

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Etxekoak





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus

📞 943 744 112 📞 688 655 658



Kaleak zigarrokinez beteta daude:

"Erretzaileei eskatu nahi nieke hain zikinak ez izateko! Zigarroa erre eta zigarrokina lurrera botatzea sekulako zikinkeria iruditzen

zait. Txakur jabeek txakurren kaka jasotzeko duten betebeharra moduan, erretzaileek ere zigarrokina zakarrontzira bota behar dute. Errespetua ezinbestekoa da elkarbizitzarako".



Emakumezkoen aldagelan ez dago entxuferik:

"Mintxetan emakumezkoentzako aldagela bakarra dago, eta ez dago entxuferik. Bi ile lehorgailu daude, baina eguneko ordu jakin batzuetan jende asko pilatzen da han, eta bi ile lehorgailu horiek motz geratzen dira. Entxufe batzuk jartzea ondo legoke. Eskerrik asko". Ramon Mujika Kirol

Patronatuko arduradunak ondorengo erantzun du: "Eskertzen ditugu gure instalazioak hobetzeko erabiltzaileek egiten dituzten proposamenak. Entxufeak aste honetan bertan, hilaren 20an, jarri ditugu ile lehorgailu gehiagorentzat. Gogoratu, bestalde, Olaizagako eta Mintxetako harreretan ere jasotzen ditugula erabiltzaileen kexa, iradokizun edo proposamenak".



Txalo bat musika eskolako dantza jaialdia antolatu zutenei:

"Txalo bat eman nahi diet Inazio Bereziartua musika eskolako dantza arduradunei, joan zen asteko dantza jaialdiagatik. Oso polita izan zen eta gogotik gozatu genuen. Segi horrela!".



Eskerrik asko, herdoildutako farolak berritzeagatik:

"Eskerrak eman nahi nizkioke Elgoibarko udalari, eta bereziki udal brigadako langileei, kiroldegi inguruan herdoilduta zeuden bi argi farola berritzeagatik. Udalak jarritako *Linea Verde* delako aplikaziotik erraz-erraz eskaria egin nuen eta txukun egin dituzte konponketa lanak. Linea berdea udalari eskariak bideratzeko modu erraza, doakoa eta eraginkorra da, guneko publikoan desegoki daudenak konpontzeko".





San Pedro auzoko bizilagunak batu egin dira, garai zaharrak gogora ekartzeko

Elgoibarren badira nortasun bereziko auzoak, eta horietako bat da San Pedro. Romualdo Gartzia negozio gizon nafarrak 1877an martxan jarri zuten San Pedro lantegiari oso lotuta egon zen auzo hau. Lantegiko langileentzat eraiki ziren hango etxeak, eta kanpotik lanera etorritako

jendea batu zen han. Beharrak batu zituen bizilagunak, eta denborarekin denak familia handi bat osatu zuten. Zapatuan batu ziren berriz 140 lagun inguru, garai zaharrak gogora ekartzeko. Herrian bizi direnak eta kanpotik etorritakoak bildu ziren, eta elkarrekin bazkaldu zuten denek.

Debabarretetik Loiuco aireportura autobusez joatea merkeagoa izango da

Loiuco aireportuarekin konektatzen duten Lurraldebuseko lineak Mugi sisteman sartu dira, eta horri esker, bidaiak merkeagoak izango dira aurrerantzean. Debagoiena eta Debabarrena eskualdetako udalerrien eta aireportuaren arteko konexioek 1,94 euro balioko dute Mugi pertsonalizatuarekin, 2,53

euro Mugi anonimoarekin. Jakinarazi dute, bestalde, pandemia garaian abian jarri zuten Lurticket aplikazioa bertan behera geldituko dela, eta, ondorioz, txartelak soilik eskuratu ahal izango direla leihatilan, autosalmentako makinetan, web orrian eta autobusean bertan Mugi txartelarekin.



Alboko erretratu honetan ageri direnak San Pedro fabrikan lan egindakoak dira: Felix Diez (urteetan auzoko jaiak antolatzen ibiltzen zen), Florentino Fulgencio, Francisco Gonzalez, Luis Orza, Luis Cerron eta Antonio Garcia.

Mendaroko zubiko obren eraginez apirilaren 2tik aurrera semaforo bidez arautuko dute trafikoa

Mendaroko zubiko obren eraginez aldaketak egingo dituzte trafikoa. Semaforo bidez arautuko dute trafikoa, apirilaren 2tik aurrera. Mendarozabal kaleko autobus geltokia semafoaren aurretik kokatuko dute. Horrez gain, errotondatik Debarako irteera-errai

estutu egingo dute, apirilaren erdi aldera, eta oinezkoentzako pasabidea bi hilabetez itxita egongo da.

Oinezkoek, beraz, Herriko Enparantzatik abiatuta Deba ibaiko pasabidea erabili beharko dute Azpilgoeta kalera iristeko.

'Planak kuadrillan' egitasmoa aurkeztu dute, aniztasun funtzionala duten gazteentzako

Aniztasun funtzionala duten nerabe eta gazteentzako *Planak kuadrillan* programa jarri dute martxan Elgoibarko Udalak eta Nuala elkarteak. Programaren helburua 16 urtetik gorako gazteei, aniztasun funtzionala izan edo ez, beren garaikideekin aisialdiaz gozatzeko aukera ematea da, familiarik eta hezkuntzatik kanpoko harremanak sortuz eta trebetasun pertsonalen garapena sustatuz. Era berean, senideei beren zaintza-ardura arindu nahi diete. Hamabost egunean behin egingo dituzte planak, 17:00etatik 20:00etara, otsailetik ekainera eta irailetik abendura. Horrez gain, uztailen eta abuztuan ere zerbitzua eskainiko dute, astean hiru egunetan, ordutegi berean, *Udako kuadrilla 2024* izenarekin. Hezitzaileen ratioa ezartzeko, parte-hartzaileen kopurua eta gaitasunak hartuko



dituzte kontuan. Programan parte hartzeko, interesa dutenek Udaleko gizarte zerbitzuekin jarri beharko dute harremanetan.

Osasungintza publikoari buruzko debatean parte hartzeari uko egin diote EAJ-k eta PSE-k

24/7 plataformak osasungintza publikoaren egungo egoerari eta etorkizunari buruz hausnartzeko bi mahai-inguru antolatu ditu. Atzo egin zuten lehenengoa sindikatuetakoz ordezkariekin, eta datorren asterako alderdi politikoekin egingo dute bigarrena. EHBilduk eta Podemosek onartu dute mahai-inguruan parte hartzea, eta Rebeka Ubera eta Wesley Aritz izango dira partaideak. PSE-k eta EAJ-k uko egin diote mahai-inguruan parte hartzeari. Plataformatik azaldu dutenez, PSE-k agenda arazoak zituen baina aurrerago beste hitzorduren batean parte hartzeko aukera zabalik utzi dute. EAJ-k, aldiz, eskerrak eman dizkie gonbidapenagatik, baina Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde bezperatan, hauteskunde kanpaina hasi baino bederlatzi egun lehenago horrelako debate bat proposatzea ez dute egoki ikusi. "Sentitzen dugu adieraztea planteatzen diguten proposamena ez dela jendearekin izandako elkarrizketa espontaneo eta natural batetik sortzen, baizik eta edozein elgoibartarrek antzeman dezakeen bezala, alderdi jakin baten estrategiaren barruan kokatzen dela. Beraz, ez, ez dugu parte hartuko

EH Bilduren interes eta estrategiari soilik erantzuten dioten eztabaida eta formatuetan, eta gaitzetsi egiten dugu pertsona batzuek gurea bezalako gizarte demokratiko eta aske batean gizarte-mugimenduz eta kezka guztiz legitimoez egiten duten instrumentalizazio partidista. Gauzak argudio arrazoituekin eta fede onez eztabaidatzeko, hurrengo euskal hauteskundeetako kanpaina daukagu".

Plataformak argitu du gonbidapen bera eta baldintza beretan bidali zela alderdi politiko guztiei, eta penagarritzat jo du EAJk emandako erantzuna; izan ere, euren ustez errespetu falta handia erakusten die euskal osasun zerbitzu publikoaren egoerarekin eta etorkizunarekin kezkatuta dauden Elgoibarko herritar guztiei.

EH Bilduk, bestalde, plataformako kideak zoriondu ditu herritarren kezka nagusienetakoa den gaia mahai gainean jartzeagatik, eta gaineratu dute "biziki sentitzen dutela" PSE eta EAJ mahai horretan ez egotea, elgoibartarrek ezingo dutelako bertatik bertara entzun Jaurilaritza osatzen duten bi alderdi nagusien iritzia.

Elgoibarko EAJ-k Uri Buru Batzarra berritu du

Elgoibarko EAJ-PNVk Uri Buru Batzarra berritu du, eta hauek dira egungo zuzendaritza taldeko kideak: Iosu Arraiz presidente lanetan, Alfredo Etxeberria, Bittori Zabala, Fidel Gomez, Ana Santolaya, Julen Etxeberria, Monica Andonegi eta Noemi Otegi. Orain arte lanean aritu diren Inga Segurola, Mainer Lizundia, Aitor Iriondo, Iñaki Alvarez eta Jose Mari Kortaberriaren lana eskertu dute.

Zuzendaritza talde berriari buruz esan dute gaztea eta esperientzia duen taldea dela, eta "ilusioz eta erabakitasunez", elgoibartarren alde



lan egitera datozela. "Zuzendaritza batzorde berria prest dago aurkezten diren erronkei aurre egiteko, elgoibartarren zerbitzurako eta Elgoibarren interesak defendatzeko konpromiso sendoarekin. Espero dugu, lan gogorarekin eta lankidetzarekin, etorkizun oparogo eta guztiontzat bidezkoago baterantz aurrera egiten jarraitu ahal izango dugula", adierazi du Arraizek.

Debabarreneko Mankomunitateak ia 130.000 euro erabili ditu edukiontzi marroietan oker lagatako hondakinak ateratzeko

Edukiontzimarroian oraindik ere biohondakinak ez diren hondakinak agertzen direla ohartarazi du Debabarreneko Mankomunitateak. Kopurutan, jakinarazi dute iazko ekainetik aurtengo martxora bitartean, 64.568 poltsa desegoki atera dituztela edukiontzi marroietatik eta 2022an eta 2023an, 129.973 euro erabili behar izan dituztela edukiontzi marroietara desegoki botatuko poltsak ateratzeko. Azpimarratu dute edukiontzi marroietara bakarrik janari hondarrak bota daitezkeela, betiere poltsa konpostagarrietan,

eta, horrela ez egiteak, ingurumenari kalte egiteaz gainera, eskualdeko ekonomiari ere kalte egiten diola. Hori horrela, edukiontzi marroietan hondakin desegokiak azaltzea ekiditeko neurriak hartuko dituela iragarri du Mankomunitateak. Gogorarazi dute aurten txip bitartez itxiko dituztela edukiontzi marroiak eta bide beretik jakinarazi dute hondakinak biltzeko ordenantza aldatuko dutela laster, hondakinak behar bezala banatzen ez dituzten erabiltzaileei espedienteak irekitzeko.

Elkarretaratzea egin dute Pedro Muguruzako eskolak eraistearen kontra

Txosten teknikoaz aztertu ostean, Elgoibarko Udalak Pedro Muguruzako eskola zaharra botatzeko erabakiari eutsi dio, eta horren kontra batu ziren hainbat herritar zapatuan, Kalebarren plazan. Evaristo Rodriguezek hartu zuen hitza, eta Pedro Muguruzako eraikinarekin egin nahi denaren inguruan mesfidantza handia dutela esan zuen. "Mesfidatiak gara eta mesfidatiak izateko eskubidea dugu. Eskatzen dugu eraikinaren azterketa independente bat egitea, eta baita eraikina zaharberritzeak izango lukeen kostuaren gaineko txosten tekniko bat ere. Eta



horiekin batera, erakina botatzeak eta ingurua urbanizatzeak izango lukeen kostua zein den ere jakin nahi dugu, eta gehi diezaiotela horri galduko den erakina duen balioa. Azterketa guzti horiek egin eta txostenak eskuan ditugula, herriak erabaki dezala".

KORRIKA IRUDITAN



📍 Korrika / Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia
Asier Orbea / Leire Rubio / Zaloa Arnaiz

Irunen hasi eta 11 egunez etenik gabe 2.700 kilometro inguru egingo ditu euskararen aldeko aldarriak, lekukoa eskutik eskura aldatuz. Asteazkenean iritsi zen Korrika gurera, eta dagoeneko Baionara bidean da. Sorluzetik iritsi zen, eta Saturion hartu zuten lekukoa elgoibartarrek. Herritarrek harrera beroa egin zioten Santa Ana kalean, eta herri osoa zeharkatu ostean, Mendarorako bidea hartu zuen. Irudi hunkigarriak laga ditu aurten ere Korrikak, eta orriotan jaso ditugu lekukoa eraman dutenen irudiak. Harro erantzun dute berriro ere Elgoibarrek eta Mendarok. Argazki gehiago eta bideoak: barren.eus



Gainduko langileak



Haizea emakume taldea



Elgoibarko Euskal Eskola publikoa



Mauxitxa txaranga



Sanlo EKT



C.D. Elgoibar



Udaleko ordezkariak



Udal langileak



Jo ta Sua taldea



PuntuEus Fundazioa



Elgoibarko EAJ



Ikastolako gurasoak



Ikastolako langileak



Ikastolako ikasleak



San Lazaro egoitza



Txankakua merkatarien elkartea



Elgoibarko EH Bildu



Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea



Haritz Euskal Dantzari Taldea



Alcorta Forging Group



Etxepe



Rodisako LAB



Ideko S. coop.



Danobat Group



Danobat S. coop.



Morkaiko mendizale elkarte



Elgoibarko AEK euskaltegia



Lanbi



Mendaroko ospitala



In Leike kultur elkartearen



Arno guraso elkartearen



Mendaroko ikastola



Mendaroko EAJ



Mendaroko Udala



Ameikutz Musika Eskola



Giza-proba taldea



Motxaila Elkartearen



Mendaroko Txirrindulari Elkartea



Lizarpe mendi Kluba



Aizpe, Bustin Alde eta Kilimoi elkarteak



Gararock



Kolore Guztiak




RTS



LAB RTS



Mutualia





MOTXAILEN UDABERRIA

✍️👥 Ainara Argoitia / 📷 Motxaila Elkarte

Eguna baino lehen hasi dute udaberria Mendaroko motxailek aurten. Zerua motxailen aterpe bertso saioarekin hasi zituzten ospakizunak barikuan eta Aitzbeltz kobazulora egindako irteerarekin ekin zioten jai usaineko zapatu luzeari. Musika, bertsoak, poesia, Patxangoi elektrotxarangarekin tabernaz tabernakoa eta kontzertuak. Bete-betea izan zen Mendaron Motxaila asteburua, eta ez zuten mendaroez udaberriko nekerik agertu; bai kontrakoa: poza eta jai gosea.



Elgoibarko Udalak 211.859 euroko dirulaguntza emango die ikastetxeei aurtengo ikasturterako

Elgoibarko Udalak hitzarmen bateratua sinatu du aurtengo ere eta horren barruan 211.859,26 euroko dirulaguntza emango die herriko ikastetxeei hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Hitzarmena honakoek sinatu dute: Maialen Gurrutxaga Uranga, Elgoibarko Udaleko alkatea; Itziar Ondarra (Ikastola), Nerea Gorostiza Uriguen (Herri Eskola); Jone Agirregomezkorta (Institutua); Jose Mari Beristain Aristondo (MEKA), Ixaka Egurbide Lekube, (IMH) eta Estibalitz Arando Ugartetxea (EPA).



Honela banatu dute dirua: · Herri Eskola: 31.222,63 euro, Institutua: 26.438,00 euro,

Ikastola: 68.237,63 euro, MEKA: 12.214,00 euro, IMH: 71.939,00 euro, EPA: 1808,00 euro.

Udaldirako hezitzaileak behar ditu Elgoibarko Izarrak

Elgoibarko Izarrak Atxutxiamaikaren udaldiko eskaintzan lan egiteko hezitzaileak behar ditu. Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea

eta ahozko euskara maila handia eskatzen dira. Apirilaren 10era arte egongo da izena emateko aukera. Informazio gehiagorako *elgoibarkoizarra.eus* webgunea kontsultatu daiteke.

Berdintasunaz, euskaraz eta kooperatibaz mintzatu dira Danobaten kooperatibaren 70. urterrenaren harira antolatutako solasaldian

Danobat, iraganari begirada bat izeneko mahai-ingurua egin zuten martitzenean Danobaten, kooperatibaren 70. urterrenaren baitan. Ana Artetxe eta Lurdes Altzibar langile erretiratuak gonbidatu zituzten solasaldirako, elgoibartarra bata eta mendexarra bestea, eta Ainara Argoitia BARRENEKO kazetariak gidatu zuen saioa.

23 urte zituela ekin zion kooperatiban lanean Lurdes Altzibarrek, Lealden, administrari lanetan, eta 2008an iritsi zen Danobatera, Lealdek eta Danobatek bat egin zutenean. Ordurako ardura postuetan ibilia zen Lealden: finantza zuzendari izendatu zuten lehenengo eta lehendakari karguan egin zituen azkeneko urteak; garai zailak. Ana Artetxe, berriz, 16 urterekin hasi zen Danobaten, bulegoko lanetan, departamendu guztietako datuak ordenagailuan sartzen, eta hantxe egin zituen 50 urte egin arteko urteak.



Erretiroa hartu aurreko azkeneko hamar urteak, berriz, Idekon egin zituen. Haien izana eta ibilbide profesionala kooperatibari lotua egon da oso gaztetatik, eta bizipenetatik mintzatu ziren, kazetariak zehaztutako lau ardatzen inguruan: berdintasuna, euskara, kooperatiba eta etorkizuneko erronkak. Danobateko Euskara eta Berdintasun Batzordeek antolatu zuten saioa EMUNEN laguntzarekin.

Mendaroko bertso-eskolako talde batek Gelatik Plazara sariketako finalean hartuko du parte



Gelatik Plazara sariketa jokatu zuten barikuan Soraluzen Elgoibarko, Mutrikuko, Mendaroko eta Soraluze bertako bertso eskoletako 10 eta 14 urte bitarteko ikasleek. Bertsozale Elkarteak antolatu ohi du sariketa hori, eta aurten, Gipuzkoako zortzi eskualdetan egin dute. Debararreneko kanporaketan Eneko Beretxinaga bertso-irakasleak egin zituen gai-jartzaile lanak, eta Irune Basagoiti eta Alexander Idoeta Mendaroko eta Mutrikuko bertso-eskoletako irakasleak izan zituen ondoan laguntzeko. Puntuari erantzuten, ofizioa eta oina emanda jardun ziren bertsolari gazteak, bat-batean, hiru laguneko taldeetan banatuta, eta saio

ederra osatu zuten elkarrekin (Argazkiak ikusteko: barren.eus). Kanporaketa izanda, baina, talde irabazle bat aukeratu beharra zuen epaimahaiak eta Mendaroko talde morea aukeratu zuten apirilaren 28an Aretxabaletan egingo duten Bertso-Eskolen egunean kantatzeko. Gelatik Plazara sariketaren finalak jokatu dituzte egun horretan, Aretxabaletan Gipuzkoako zortzi taldek, eta han arituko dira kantuan Haritz Zubiaurre, Mikel Romero eta Luken Zulaika mendarorarrak. Osagai gehiago ere izango ditu, hala ere, bertso eskolen egunak, egun osoko egitaraua prestatu baitute Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak.



Atxutxiamaiakako Aldenik Aldenekoek Oibarren hartu dute Korrikaren lekukoa

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko Atxutxiamaiaka aisialdi taldekoek Korrikako kilometro bat erosi zuten Nafarroan eta joan zen zapatuan hartu zuten lekukoa, Oibarren. Asteburu-pasa joan ziren gazteak Oibarrera eta goizean-goiz hartu zuten lekukoa 07:56an, Zarrakazteluko Iparralde Elkarteak ordezkarien eskutik. Arene Baltzolak eta Maialen Langarak eraman zuten lekukoa.

Luziano margolariaren erakusketa, Elgoibarren, apirilaren 12tik aurrera

Luziano Ruiz Poveda *Luziano* margolariak (Elgoibar, 1931) *Materia eta kolorea* izeneko erakusketa zabalduko du Elgoibarko Kultur Etxean apirilaren 12an, 18:30ean, eta apirilaren 27ra arte egongo da ikusgai astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era bitartean.



Hil bukaerako azoka egingo dute bihar Elgoibarren



Aste Santuko oporraldia dela-eta, hil bukaerako azoken egutegia aldatu egin dutela jakinarazi dute Elgoibarko Udaletik. Bihar, zapatua, hilak 23, KM 0 Sustapen azoka egingo dute, eta bihar zortzi, hilaren 30ean, abeltzantza azoka; biak ere Kalebarren plazan.

Biharkoak ohiko ordutegia izango du. 09:00etatik 14:00etara, baserriko eta Artalde Artisanu Taldekoen produktuak salduko dituzte Kalebarrenen. 11:00etatik aurrera Jo Ta Sua taldeak pintxoak prestatuko ditu Kalebarren plazan Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin, eta 11:30etik 14:00era, umeentzako tailerra egongo da Kalebarren plazan. Hilaren 30ean, berriz, abeltzantza azoka egingo da. Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa jarriko dute Kalebarren plazan.

Biraka taldeak udalekuak antolatu ditu udarako



Mugimendua, koordinazioa, sormena, eta beste hainbat gauza landuko dituzte udalekuetan, modu ludiko eta dibertigarri batean. Hala jakinarazi dute antolatzaileek. 7 eta 15 urte artekoentzako eskaintza da, 2009 eta 2017. urteen artean jaiotakoentzat, eta egunero hiru ordu eta erdiko saioak izango dira, 09:30etik 13:00ak arte. Bi txanda izango dira aukeran: lehenengo txanda uztailaren 1etik 12ra, eta bigarren txanda, uztailaren 15etik 26ra. Eta taldeak adinaren arabera osatuko dituzte, nahiz gero elkarrekin ibiliko diren denak.

Ekainaren 21ean zabalduko dute izena emateko epea eta taldeak izen-emate hurrenkeraren arabera osatuko dituzte. Ez dute gero zozketarik egingo. Haur bakoitzeko prezioa 150 eurokoa izango da, baina familia bereko bi kidek izena emanaz gero, bigarrenak 110 euro ordaindu beharko ditu. Ordainketa ondorengo kontu korrontean egin beharko da, haurraren izen-abizenak zehaztuta: [ES84 2095 5036 58 1073314543](tel:ES8420955036581073314543)

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Elgoibarrera etorriko dira apirilaren 12an

Ez gara jaitisiko ikuskizunarekin etorriko dira Mendarora Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak apirilaren 12an. Bi saio emango dituzte, 17:00etan bata, eta 19:00etan bestea, eta sarrerak salgai daude dagoeneko *herrikoantzokia.eus* webgunean. Lehiatilan ere erosi ahalko dira zapatuetan, 18:15etik 20:45era.



Jazzak hartuko du Mendaro martxoaren 23an, Irati Bilbao musikariaren eskutik

Urtarrilean hasi zuten jazz zikloaren barruan, beste kontzertu bat iragarri dute Mendaron martxoaren 23rako. Malwina Masternak jazz abeslaria Miguel Rodriguez (pianoa), Joan Terol (bateria) eta Javier Callen (kontrabaxua) taldekideekin batera urtarrilean eman zuen kontzertuak zabaldu zuen zikloa, eta domekan, Irati Bilbao musikariaren txanda izango da. 2019an Musikeneko musikari talde batekin sortutako proiektu pertsonala aurkeztuko du Bilbaok, eta horretarako, Mikel Nuñez (pianoa), Fran Serrano (baxua) eta Aitor Bravo (bateria) taldekideekin batera arituko da oholztan. Jazz klasikoa du oinarrian proiektuak. Uztargi tabernakoek eta Galle-tiak gozotegikoek antolatu dute kontzertua. Sarrerak Uztargi tabernan



salduko dituzte 8 euroan, bai eta egunean bertan San Agustin kulturguneko atean ere, aurrez amaituko ez balira.

Beste bi

Ziklo honen baitan beste bi kontzertu dituzte iragarrita: bata, maiatzaren 25erako: Satxa Soriazuren Megadeth proiektua, eta bestea uztailaren 18rako, Move taldearen kontzertua. Iñigo Ruiz de Gordejuela piano jotzaile mendaroarraren taldea da Move.

'Lotura basatiak' antzezlanak ikusteko aukera izango da Mendaron, etzi



Goaz antzerki taldeak *Lotura Basatiak* obra emango du domekan, hilaren 24an, Mendaroko San Agustin kulturgunean, 18:00etan. Joan zen azaroan estreinatuta zuten antzezlanak, Deban, eta izan zuen arrakasta ikusita, beste herri batzuetara zabaldu dute performance erako ikuskizuna. *Lotura Basatiak* obrak 30 minutuko iraupena du eta Amaia Arotzena, Jule Urbieta, Maialen Rosa, Amaia Zinkunegi, Itzale Laka eta Irati Baroja dira antzezleak, debarrak guztiak, eta Maialen Barojak laguntzen die argi eta soinu teknikari gisa.

'Bizkarsoro' filma emango dute gaur Mendaroko San Agustin aretoan



Martitzenean Elgoibarren ikusteko aukera izan genuen *Bizkarsoro* filma, baina ikusi ez duenak Mendaron izango du gaur aukera, Korrika Kulturalaren barruan, San Agustinen, 18:30ean. Josu Martinezek zuzendutako fikziozko luzemetraia da *Bizkarsoro*, eta 1914tik 1982ra bitartean gertatzen diren bost istorio osatzen dute filma. Ahozko lekukotzetan eta idatzitako testuetan oinarritutako fikziozko bost istorio dira, bost hamarkadataro kontakizuna. Euskaraz bizitzeagatik jazarriak izan diren euskaldun guztien istorioa da.

BIZIRIK DA KARAKATE

Ospatzeko eguna izan zan zapatukoa. Green Capital enpresak Karakaten parke eolikoa egiteko asmoak berpiztu zuen Karakate Bizirik taldea, eta hainbat eta hainbat herritar batu zitzaizkien proiektuaren kontra egiteko. Azkenik, bertan behera laga zuten egitasmoa, eta hori herritarrekin ospatu nahi izan dute eragileek. Egun osoko egitaraua prestatu zuten zapaturako, eta giro onean joan zen eguna. Argazki gehiago: barren.eus



C.D. Elgoibarrek 2.400 euro banatu ditu herriko lau elkarteren artean, elkartasunez

C.D. Elgoibarrek 107 urte bete zituen martxoaren 3an, eta egun seinalatu hori elkartasunerako eguna izatea erabaki zuten. Dirua batzeko hainbat ekintza antolatu zituzten, besteak beste, zozketa bat egin zuten, soberan zituzten arropak salgai jarri zituzten; eta, Haundiko jokalariek ere egin dute diru ekarpena, emakumezkoen zein gizonezkoen taldeko jokalariek. Era horretan, 2.400 euro batu dituzte, eta besteei laguntzen aritzen diren herriko elkarteei ematea erabaki dute, honakoei: Elgoibarko Gurutze Gorria, Nuala Elkartea, Dislegi Debabarrena eta Caritas Elgoibar. Azaldu dutenez, Elgoibarko Odol Emaileen Elkartekoei ere eskaini zieten laguntza, baina euren partea beste elkarteei banatzeko eskatu zieten odol elkartekoei. Azken horiek jakinarazi



dutenez, bazkideen ekarpenaz gainera, Danobat eta Altzolako Urak enpresen eta Elgoibarko Udalaren dirulaguntzak jasotzen dituzte, eta odola emanez laguntzeko proposamena egin diete C.D. Elgoibarkoei. Gizonezkoen Haundi taldeak Real Unionen aurka Mintxetan jokatu zuen partida hasi aurrekoan jaso zuten dirua aipaturiko elkarteetako ordezkariak.

Herri-kirol ezberdinak probatzeko aukera izan dute Mendaron eskola-umeek



Bost herri-kirol ezberdinetan aritzeko aukera izan zuten aurreko zapatuan Mendaron herriko bertako eta Sorluzeko eskola-umeek, Herri Kirol Federazioaren eta Arno Guraso Elkarteko eskutik. Bi sailetan banatu zituzten umeak. Batetik, LH3tik LH6ra arteko ikasleak, eta bestetik, Haur Hezkuntzakoak, beste txoko batean. Zakua eramaten, txinga eramaten, lokotxak batzen, sokatiran eta giza-proban aritu ziren umeak Herri Kirol Federazioko boluntarioen eta Arno Guraso Elkarteko laguntzarekin. Mendaroko 34 bat umeak parte hartu zuten, eta Sorluzeko 33ren batek.

Plazako pala txapelketetarako izena emateko epea, zabalik

Emakumezkoen XI. Pala Txapelketa eta Gizonezkoen VII. Pala Txapelketa antolatu ditu Lagunak Pilota Eskolak. Apirilaren 11tik ekainaren 21era jokatu dituzte Kalegoen Plazako frontoian, eta martxoaren 31ra arte eman dezakete izena bikoteek. Parte hartu dezaketen bikoteen kopurua hamabira mugatu dute. Bikote bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu eta Bizum bidez ordaintzeko aukera ere izango da. Emakumeen txapelketan izena emateko telefona (646 801 407 Yolanda) eta gizonenerako (690 612 927 Bergua).



Aiastiako bolatokian jokatuko dute zapatuan Gipuzkoako txapelketako bigarren tiraldia



Lehiari ekiteko gogotsu zeuden bolariak eta 62k hartu zuten parte irekiera jardunaldian, Azkoitiko Floreaga auzoko bolatokian jokatu zuten tiraldian. Sebas Anantzabal elgetarra gailendu zitzaizen etxeko bolariei, egin zituen hiru jaurtialdietan 7 txirlo bota baitzituen elgetarrak, Floreaga taldeko Santos Muñozek eta Erik Muñozek baino bat gehiago. San Migel taldeko Unai Loiola

elgoibartarrantzat izan zen laugarrenkoa, bost txirlo botata.

Hamar jardunaldi izango ditu Gipuzkoako txapelketak eta Aiastiako bolatokian jokatu dute bihar (martxoak 23) bigarrenkoa, 17:00etatik aurrera. Gaur ere egongo da bolotan egiteko aukera san Migel bolatokian, tiraldia egingo baitute, 23:00etatik aurrera, bolariko euro bana ordainduta.

Joseba Etxeberriak luzatu egingo du Eibarrekin daukan kontratua



Joseba Etxeberriak (Elgoibar, 1977) Eibar KE-rekin duen kontratua berrituko du, *El Correo* egunkariak aurreratu duenez. Entrenatzaile elgoibartarrak lehen denboraldia du Eibarren, eta Lehen Mailara igotzea lortuz gero, zuzenean berrituko luke kontratua, baina akordio berriaren arabera, taldeak Bigarren Mailan jarraitzen badu ere, Etxeberria Eibarren entrenatzailea izango da hurrengo denboraldian. Eibar KE-ren zuzendaritza pozik dago Etxeberriak egindako lanarekin zein taldeak eskaintzen duen jokoarekin, eta zalekien onespena ere badu entrenatzaileak.

Amaierako zatia aldatu diote Kilimon Trail lasterketari

Kilimon Trail lasterketaren 12. ekitaldia jokatu dute Mendaron, apirilaren 6an, 16:00etan hasita. Bi lasterketa izango dira aukeran: 23 kilometrokoa eta 11 kilometrokoa. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bi lasterketetako amaierak aldatu behar izan dituzte. Hori bai, amaierako ibilbide berria iada markatu dutela zehaztu dute, eta ezagutzera eta entrenatzera animatu dituzte mendi lasterkariak. Instagramen duten kontuan igo dute tracka (<https://www.instagram.com/kilimontrail/>). Apirilaren 4a izango da proban izena emateko azken eguna. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eta Lizarpe Mendi Klubak antolatzen dute lasterketa, Mendaroko Udalaren laguntzarekin.



LANA**Eskaerak**

Umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, arratsalde. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat.

685 731 164

Adinekoak edo umeak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat, erizaina naiz formazioz eta titulu soziosanitarioa daukat. **605 462 264**

Etxe, taberna edo bulegoetan garbiketa lanak egiteko prest nago. **688 758 630**

Adinekoak zainduz egingo nuke lan, esperientzia eta titulu soziosanitarioak ditut. Etxeko langile moduan, orduka edo ospitalean. **679 912 841**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. **613 346 916**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, astean zehar, orduka. **633 596 106**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak. **604 392 529**

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanetarako ere. Esperientzia handia. **637 222 318**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketan aritzeko prest nago. Baserrietara joateko autoa dut, titulu soziosanitarioa eta esperientzia handia. Berehala hasteko prest. **602 834 107**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, baita etxeko langile moduan aritzeko ere. Arratsalde edo gauetz. Esperientzia daukat. **661 181 824**

Adinekoak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia eta titulu soziosanitarioak ditut. Etxe edo bulegoetan garbiketa lanak egiteko prest. **631 887 341**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. **647 554 386**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **666 012 086**

Astean zehar, goizez edo arratsalde, adinekoak zaintzeko prest. Ospitalean gauetz ere bai. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa. **685 729 790**

Eskaintza

Lanerako googo duen ile-apaintzaile bila gabilta. **626 524 949**

Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun erdiz lan egiteko pertsona bat behar du, maiatzean hasi eta abuzturarte. Gidabaimena ezinbestekoa. Bidali CV: hornikuntza@gmail.com

GARAJEAK

Garaje itxia alokatzen da, Jausoro plazan (udaletxetik gertu). **672 422 237**

BESTELAKOAK

Ezkontza aliantza galdu dut, Basarteko eskailera mekanikoen inguruan. Demetrio Torres jartzen du. **943 741 275**

OSPAKIZUNAK

1959an jaiotako en kinto ospakizuna ekainaren 8an. Marem tabernan batuko dira 13:00etan eta Sigman bazkalduko dute 14:30ean. 70 euro ordaindu behar dira maiatzaren 15erako. Laboral Kutxa: ES35 3035 0007 27 0071144803

administradores

Consejo Universitario de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Enkainaren Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net


Gure komunitatean datorren urtean presidente izatea tokatzen zaion bazilagunak hainbat kuota ditu ordaindu gabe. Jakin nahi nuke ez saihestu dezakegun pertsona hori presidente izatea.

Ordaindu gabeko kuota dituen edo jabeen batzarretara joaten ez den jabe bat lehendakari izendatzea ez da legez kanpoko; izan ere, Legeak ezartzen duen muga edo eskubide-gabetze bakarria kuota ordainduta ez egoteari dagokio. Kasu horietan, legeak boto-eskubidea kentzen dio soil-soilik. Beraz, egoera horretan dagoen jabe bat presidente izendatzen bada, hau da, saldo zordunen titular izanez gero (kuota arruntak edo apartekoak), edo biak batera, boto-eskubiderik gabe geratzen dira. Baina kargua bete eta komunitatea ordezkari lezakete. Hala ere, izendapena baliozkoa izan arren, ezerk ez du eragozten, ezta legez kontrako edo diskriminatzailea ere, une jakin batean batzarrak txanda salto egitea beharrezkotzat jotzen badu.

Gomendioa: lehendakariaren hautaketan txanda-sistema zorrotza aplikatzean, ohikoa da kargua hartzea jabe zordun batek edo arrazoi desberdinak medio komunitateak salatutako batek. Kasu horietan, bidezkoa da txanda edo zozketa sistema alde batera uztea eta zuzenean beste jabe bat aukeratzeko lehendakari kargurako.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Martin!** 7 urte dagoeneko! Jarraitu horrelako alai! Muxu handi bat familiakoen partez. Asko maite zaitugu.



Gure udaberriko larrosak igandean 12 urte zoragarri beteko ditu. Zorionak, June, etxeko guztien partez.



Zorionak, **Maia!** 18 urte! Muxu handi bat, maite zaitugun guztien partetik.



Zorionak, **Danel,** txapeldun! 10 urte borobil! Etxekoan, eta bereziki, Markel eta Endikaren partez.



Zorionak, **Ane!** jarraitu orain bezain neska jatorra izaten. Ederki pasa genuen zure egunean. Muxu eta besarkada bat etxeko guztien partez, eta batez ere Pauleren partez.



Zorionak, **Ane,** 6. urtebetetzean. Egun polita marraztuko dugu. Muxu pila bat familiakoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**OSASUN GIDAN
PUBLIZITATEA JARRI NAHI DUZU?**

Gidan agertzearen onurak!

23,82€
hilean

23,82€ren truke, hiler, zure osasun zentroaren irudia erakutsiko dugu **BARREN** astekarian.

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da **Elgoibar** eta **Mendaron** erakusleiho ikusia.

4.700
ale astero

4.700 ale banatzen ditugu **Elgoibarren** eta **Mendaron DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

 **943 744 112**
 **688 769 657**

 **barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

Alta Agirre Kulturgunea, 3. .3. ezk
20870 ELGOIBAR

EXPRESS ESKAINTZAK!

**BOSCH WTR85V92ES
ARROPA LEHORGAILUA**

A++

649 €



- 8 kg-ko karga
- Bero-ponpa
- EasyClean funtzioa
- Display led
- AutoDry funtzioa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - **bire@milar.es**
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

22 BARIKUA

18:30 7. arteari buruzko kafe tertulia. Lilan.

18:00 'Zergatik eta zertarako euskaldun' egitasmoa: gazteentzako hizketaldia. Kultur Etxean.

18:30 'Mugikorren auzia'. Telmo Lazkano adituak emango du hitzaldia. Gaztelaniaz. Gurasoentzako tailerra izango da. Aita Agirreko areto nagusian.

18:30 'Bizkarsoro' filmaren proiektzioa. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

20:00 'Zergatik eta zertarako euskaldun' egitasmoa: Maria Blancoren bakarriketa. Aita Agirre kulturgunean.

23 ZAPATUA

0Km. sustatzeko feria

9:00 - 14:00 Elgoibarko baserrietako eta Artalde Artisau Taldekoen produktuak jarriko dituzte salgai. Kalebarren plazan.

11:00 Jo Ta Sua taldekoek zabalduko dute txosna.

12:00 - 14:00 Umeentzako tailerrak. Kalebarren plazan.

20:00 Kontzertua: Irati Bilbao. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

24 DOMEKA

10:00 Dultzaineroen diana.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

1. *La puerta grande* (Elvira Checa).

2. *Peer Gynt* (Edward Grieg).

3. *La madrugá* (Abel Moreno)

4. *El fantasma de la opera* (A. Lloyd Webber).

18:00 Antzerkia: 'Lotura basatiak'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

30 ZAPATUA

Eguerdia Hilabete amaierako abeltzantza feria. Kalebarren plazan.

1 ASTELEHENA

10:00 Bisita gidatua: Dolmenen ibilbidea. Gaztelaniaz. Izena emateko: 657 794 677

6 ZAPATUA

16:00 Kilimon Trail. Mendaroko Txirringuluri Elkarteak antolatuta, Mendaron. Herriko Enparantzan hasiko da.

16:00 Kulturarteko topaketa: Zaporeak partekatuz. Merlin Medinarekin, Lilan.

12 BARIKUA

17:00 - 19:00 Antzerkia: 'Ez gara jaitsiko'. Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Herriko Antzokian.

18:00 Hilekoaren zikloa ezagutzeko tailerra. Mendaron.

18:30 Luziano margolariaren erakusketaren inaugurazioa: 'Materia eta kolorea'.

Zinea

Herriko Antzokian



'Politicamente incorrecto'

22, barikua: 19:00
23, zapatua: 19:00 / 22:15
24, domeka: 19:00
25, astelehena: 21:00

'Museoaren zaindariak'

24, domeka: 16:30

'Negu hurbilak'

28, eguena: 19:00
29, barikua: 19:00
(gaztelaniazko azpitoluekin)
30, zapatua: 19:00 / 22:15
(gaztelaniazko azpitoluekin)

'Corre, Tiger, corre'

31, domeka: 16:30

'El color púrpura'

31, domeka: 19:00
1, astelehena: 21:00

'La estrella azul'

(Ongarri zinekluba)
10, eguaztena: 21:00

'La familia Benetón'

5, barikua: 19:00
6, zapatua: 19:00 / 22:15
7, domeka: 19:00
8, astelehena: 21:00

'Patrick'

7, domeka: 16:30

Aste Santuko eta Pazko elizkizunak

ELGOIBARKO SAN BARTOLOME PARROKIAN

Martxoak 24, domeka 'Erramu Domeka'

10:30 Erramuen bedeinkatzea eta prozesioa.

11:00 Familia meza. Parrokian.

Martxoak 25, astelehena 'Astelehen Santua'

19:00 Talde penitentzia.

Martxoak 28, eguena 'Eguen Santua'

19:00 Jaunaren afariko meza. Jarraian, sakramentu santuari adorazioa.

Martxoak 29, barikua 'Bariku Santua'

11:00 Gurutz-bidea.

18:00 Jaunaren nekaldiko ospakizuna.

Martxoak 30, zapatua 'Zapatu Santua'

20:00 Pazko gaubeila.

Martxoak 31, domeka

'Jaunaren piztuerako Pazko Domeka'

11:00 Pazko meza, eta segidan, prozesioa.

MENDARON

Martxoak 28, eguena 'Eguen Santua'

16:30 Jaunaren azken afariko eukaristia (Azpilgoetan)

21:00 Ordu Santua (Azpilgoetan)

Martxoak 29, barikua 'Bariku Santua'

11:00 Gurutze Bidea (Azpilgoetan)

16:30 Jaunaren nekaldiko ospakizuna (Azpilgoetan)

Martxoak 30, zapatua 'Zapatu Santua'

21:00 Mendarotik Mutrikura autobusa, elkarrekin Pazko Gaubeila ospatzeko.

Martxoak 31, domeka

'Jaunaren piztuerako Pazko Domeka'

12:30 Pazko igandeko eukaristia (Garagartzan)

Ordu aldaketa, martxoaren 31n

Martxoaren 31n udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, ordubetez aurreratu beharko da ordularia; 02:00etan 03:00ak izango dira.

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00GUARDIAK:

Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MARTXOA

22 BARIKUA	■ Oruesagasti
23 ZAPATUA	Barrenetxea
24 DOMEKA	Barrenetxea
25 ASTELEHENA	■ Ibañez
26 MARTITZENA	Garitaonandia
27 EGUAZTENA	Arriola
28 EGUENA	■ Oruesagasti
29 BARIKUA	■ Oruesagasti
30 ZAPATUA	Arriola
31 DOMEKA	Arriola

APIRILA

1 ASTELEHENA	Arriola
2 MARTITZENA	■ Ibañez
3 EGUAZTENA	Garitaonandia
4 EGUENA	Arriola
5 BARIKUA	■ Fernandez
6 ZAPATUA	Yudego
7 DOMEKA	Yudego
8 ASTELEHENA	■ Oruesagasti
9 MARTITZENA	Barrenetxea
10 EGUAZTENA	■ Ibañez
11 EGUENA	Garitaonandia
12 BARIKUA	Arriola

2024 urte guztian, gauez:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)

943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro) - 943 756 142

■ Ibañez:Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze) - 943 751 384



Saioa Rodriguez



eman iritzia!

LHI-6ko umeentzat

ZURE IRITZIA JASO NAHI DUGU
SAN BARTOLOME JAIETAKO
UMEEN EGUNA ANTOLATZEKO



[HTTPS://LABUR.EUS/UMEENEGUNA](https://labur.eus/umeeneguna)



G R E M I O N E N G I D A



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

ARROZTEGIA

BIENA S.L.
ARROZTEGIA


Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzano, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



ARROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutze-gain industrialdea, 9
20850 Mendaró
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



ARROZTEGIA

IMAR
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

 @carpinteria_imar

Gidan
agertzearen onurak!

23,82€
hilero

12
aldiz urtean

4.700
ale astero

23,82 €ren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarlan.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendarón erakusleihu ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendarón **DOAN**.

Eman biltzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturegunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR